

“GABIRITARRAK” GARA GU

Nor gara gu? Zer gara gu?
“Gabiritarrak” gara gu.
Nor gara gu? Zer gara gu?
“Gabiritarrak” gu.

1

Holako ordu gozorik
ez da bizitzan asko! (2)
Hau da hau
Egun ederra hau da hau (2)
Egun ederra BAI!
“Gabiritarrontzako”.

2

Hainbeste urte joanda
barriro alkarrekin (2)
Ez da ez
hemen ezinik ez da ez (2)
Hemen ezinik EZ!
Hasi ezkerro, ekin!

3

Etxe askotan jaioak
Gabirian senide (2)
Hau da hau
lagunartea hau bai hau (2)
lagunartea BAI!
Jo ta ke bidez bide.

4

Arpegiz eta izenez
ezagutu ezinik (2)
Ez da ez
bihotzarentzat ez da ez (2)
bihotzarentzat EZ!
alperrik ahaleginik

5

Maiatzaren hamabia
benetan pozgarria! (2)
Hau da hau
zeru-giroa hau da hau(2)
zeru-giroa BAI!
Hau da udabarria!

6

Hemen amaituko al da
aurtengo topaketa? (2)
Ez da ez,
hau amaitzerik ez da ez (2)
Hau amaitzerik EZ!
hau ez da barriketa.

7

Bidea zabalik dago
nahi badogu jarraitu (2)
Hau da hau
hau da aukera hau da hau (2)
hau da aukera BAI!
Hau ezin da amaitu!

8

Eskerrak guztion partez
Gure Batzaordeari (2)
Hau da hau,
Gure gogoan hau da hau (2)
Gure gogoa BAI!
Jarrai gure gidari.

9

Agur ta ondo bizi
adiskide ta lagun (2)
Ez da ez,
atzerakorik ez da ez (2)
atzerakorik EZ!
Baietz erantzun daigun.

A. Martzel